

Migel Joakin Eleizegi, bi metrotik gorako gizasemea

Tristura ere handia

IDURRE ESKISABEL

«Naturaren abortu bat naiz». Hitz horiekin definitu zuen bere burua Migel Joakin Eleizegi Altzoko semeak (Gipuzkoa) 1853an, 35 urte zituela, Espainiako Isabel II.a erreginari bidali zion instantzian. Hitz gogorrak, dudarik gabe, batik bat, inork bere burua epaitzeko erabilitakoak direla aintzat hartzen bada.

Normaletik kanpoko gizasemea baitzen Migel Joakin Eleizegi, normaletik kanpo hazitakoa: 2,40 metro iza-tera iritsi zen eta 184 kilo inguru. Besoak gurutzatzen zituenean, 2,42 metroko zabalera hartzen zuen. Halaber, 39 zentimetroko horma zuten haren zapatek, eta eskularruek 31 zentimetro atzamar txikitik erpurura. Azken batean, neurritz kanpokoak zen.

Handitasuna izan zen, beraz, Migel Joakin Eleizegi *Altzoko Handi* edo *Erraldoia*-ren bereizgarria, hainbat urtez ogibide, eta bizitza gehienean zama. Handitasuna miresteko ezaugarria izaten da ohikotan, indarraren eta garaitu ezinaren seinale, baina Migel Joakini arazo egin zitzaion, seguruenara hainbestetan desiratu zuen bizi-modu normala aurrera eramateko eragozpen.

Gaitzarekin hazi

1818an jaio zen erraldoia, Altzo Azpiko Ipintza Zahar baserrian. Etxe hartako Migel Antonio Eleizegi eta Orendango Ignazia Antonia Ateagaren bederatzi seme-alabetatik laugarrena izan zen. Eleizegitarak guztiak izan bide dira altuak, baina ohiko neurrien barruan. Migel Joakini ere haurtzaro, nerabezaro eta lehen gaztaroan ez zitzaion ezer berezirik sumatzen. Aitzitik, 20 urte arte garai hartako baserri giroko bizimodu arrunt-arrunta izan zuen Altzon, Ipintza Zaharren. Baina Higinio Gandarias karmeldarrak idatzi eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartek 1979an argitaratutako *Miguel Joaquín de Eleizegui Ateaga: El gigante de Alzo (Migel Joakin Eleizegi Ateaga: Altzoko Handia)* liburuxkan jasotzen denez, 20 urtera iritsi zenean gaitxotu egin zen, eta neurri gabe haztea izan zen gaitz horren ondorioa. Walker etnologo estatubatuarrek 60ko hamarkadan egindako ikerketen arabera, hipofisiaren gehiegizko funtzionamenduak eragin zuen Migel Joakinen



Handiaren tamaina naturaleko erliebea dago Ipintza Zahar jaiotetxearen atarian. • G. GARAIALDE

erraldoitasuna. Kasu gehienetan, ahuldadea eta nekea sortzen ditu gaitxotasun horrek, baina ez du ematen Altzoko Handiak halakorik izan zuenik, garaiko kronistek jasotako berrien arabera, handia ez ezik, indartsua eta proportzionatua baitzen Migel Joakin Eleizegi, 250 kiloko harria pultsuan jasotzeko gai. Garaikide izan zuen Juan Inazio Iztuetak Gipuzkoako kondairan idatzi zuenez, handia bai, baina gizaseme egoki eta lerdena zen, beste erraldoi batzuek izaten dituzten akats eta desproporzioen arrastorik gabekoa.

Gorputz handi hura asetzeko, berriz, jateko asko behar zuen. Lakari bat indibaba (hiru kilo inguru) berdintzen zuen egunero, eta edateko, berriz, arropa bat sagardo. Bi litro eta erdi zurrustada bakarrean edaten zuela esaten dute Altzoko Handiaren berri ahoko tradizioen bidez jaso duten inguruko zaharrek. Nolanahi ere, hainbeste senidetako baserrian hura elikatzeak buruko min franko sortuko zizkien.

Laster hasi zen ingurukoaren arreta pizten Migel Joakinen handitasuna. Gurdia hartuta Tolosara joan, eta kalean harrituta begiratzen zioten guztiek, gurdiaren eta egur zamaren gainetik bera handiagoa ikusten zelako. Eta Altzon erraldoia zela zabaltzearekin batera, ikusmina. Hango eta hemengo jendea Ipintza Zaharrera joaten hasi zen, Handia ikustera.

Munduan barrena ikuskizuna

Jakin-minak, berriz, negozioaren usaina eraman zuen eskutik, eta konturatu orduko, ikuskizun bihurtu zen Migel Joakin. XIX. mendeko urte haietan puri-purian zeuden «naturako fenomeno bitxiak» erakustaldiak. Altzoko Handia ezagun egiten hasi zen garai bertsuan, mundu guztian sona handia hartu zuten Phileas Taylor Barnum estatubatuarrek bere zirkuetan erakusten zituen «gizaki bitxiak». Ipoteak, erraldoiak eta bestelako akats fisikoak ziztuzten lagunak izaten ziren Barnumen zirkuetako ikuskizun nagusi, eta EEB-Betan ez ezik, Europan ere fama handia hartu zuten erakustaldi horiek, garaiko entretenigarri nagusi bihurtzeraino. Han eta hemen sortu ziren Barnumen imitatzailak.

Ildo horretatik, berehala hurbildu ziren Migel Joakinen ingurura haren handitasunaz probetxu atera nahi zuten hainbat lagun, eta diru trukezko erakustaldiak antolatzen hasi ziren. Erakustaldi horietako aurrenekoa non eta noiz izan zen argitzen duen agirik ez dago, baina 1841ean, 23 urte zitue-

XIX. mendean, bizimodu gorabeheratsua izan zuen Altzoko erraldoiak; besteak beste, Espainian, Portugalen, Frantzian eta Erresuma Batuan ibili zen jendearen entretenigarri